

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Foru Aginduak

TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA
LURRALDE OREKAREN SAILA

2598

151/2011 FORU AGINDUA, martxoaren 28koa, Bastidan osasun zentro izateko lurzatiaren plan bereziaren espedientea behin betiko onartzen duena.

AURREKARIAK

Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuaren azaroaren 17ko 637/2010 Foru Aginduaren bidez, bertan behera utzi zen Bastidan osasun zentro izateko lurzatiaren plan bereziaren espedientearen behin betiko onarpena.

Bastidako Udalak, 2011ko otsailaren 4an, espedientearen testu bateratua igorri zuen foru aldundira, behin betiko onartua izan zedin.

Bastidako Udalak aurrekoa ordeztzen duen lerrokadura, sestra eta eraikuntzaren baldintzen planoak igorri zuen, 2011ko martxoaren 7an.

OINARRIAK

Espedientea osatzen duten agiriak aztertuta, egiaztatu da aipatutako foru aginduak ezarritako baldintzak bete direla.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Bastidan osasun zentro izateko lurzatiaren plan bereziaren espedientea.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, beren interesen alde abiaraz dezaketen beste edozein neurritz gain, ondoko errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsioa baino lehenago, interesdunek berraztertze errekurtsioa jar diezaiokete, edo beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde berberari. Horretarako, hilabete epea izango da hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko martxoaren 28a.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saileko Diputatua, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

HIRIGINTZA ARAUDIA

1. AGIRIEN ARAU BALIOA

Hirigintza Araudi honetan (2 agiria) jasotako zehaztapen guztiak arau balioa dute, bai eta I.1, I.2. I.3.I.4, O.1, O.2 antolamendu planoetan jasotakoek ere.

Ordenantza honetan jasotako zehaztapen guztiak HAPB honen antolamendu esparru barruan egiten diren eta urbanizazioa, zerbitzuak jartzea edo eraikinak egitea dela-eta gauzatzen diren lan guztiei aplikatuko zaizkie.

2. ZEHAZTAPENEN HIERARKIA

Agiri grafikoaren eta idatzizkoaren artean kontraesanik egonez gero, ondorengoetan zehaztutakoak izango dira baliozko eta aplikagarri, hurrenez hurren: antolamendu planoan, Hirigintza Araudian (2 agiria) eta 1 agirian jasotzen den memorian.

Disposiciones Administrativas

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

2598

ORDEN FORAL 151/2011, de 28 de marzo, de aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de la parcela destinada a centro de salud en Labastida.

ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral nº 637/2010, de 17 de noviembre, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial se suspendió la aprobación definitiva del expediente de Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela destinada a centro de salud en Labastida.

Con fecha 4 de febrero de 2011, el Ayuntamiento de Labastida ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente a fin de que sea aprobado definitivamente.

Con fecha 7 de marzo de 2011, el Ayuntamiento de Labastida ha remitido plano de alineaciones, rasantes y condiciones de la edificación que sustituye al anterior.

FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela destinada a centro de salud en Labastida

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma."

Vitoria-Gasteiz, 28 de marzo de 2011.- El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

NORMATIVA URBANÍSTICA

1. CARÁCTER NORMATIVO DE LOS DOCUMENTOS

Tienen carácter normativo la totalidad de las determinaciones contenidas en el presente documento "2", "Normativa Urbanística", así como lo establecido en los Planos de Ordenación I.1, I.2. I.3.I.4, O.1, O.2

Las determinaciones contenidas en estas Ordenanzas deberán aplicarse así mismo a todas aquellas obras que se realicen dentro del ámbito de ordenación de este PEOU y que correspondan a la urbanización, implantación de servicios y ejecución de la edificación.

2. JERARQUÍA DE LAS DETERMINACIONES

En caso de contradicción entre la documentación gráfica y escrita, serán válidas y de aplicación las determinaciones contenidas en los Planos de Ordenación, la Normativa Urbanística que compone el documento "2" y por último la memoria que se recoge en el Documento "1", por este orden.

Hirigintzako argibideen (1 agiria) idatzizko agiriek eta agiri grafikoez ez dute arau baliorik eta ez dute inoiz antolamendu planoetan eta Hirigintza Araudian zehaztutakoaren aurkako interpretaziorik justifikatuko.

3. BASTIDAKO ARAU SUBSIDIARIOEN APLIKAZIOA

Bastidako udal planeamenduaren arau subsidiarioen Eraikuntzari eta Erabilerei buruzko Arau Orokor eta Partikularrak aplikatuko dira, araudi honetan zehaztutakoaren aurkakoak ez badira.

3 bis. PLAN BEREZIAREN LURRALDE EREMUA

Bastidako 13 poligonoko 291 katastro lurzatiak da plan bereziaren lurralde eremua.

3 Tertius. LURRALDE EREMUAREN AZPIZONIFIKAZIOA

Lurralde eremu guztia, hots, Bastidako 13 poligonoko 291 katastro lurzatiak, azpizona bakarrik da, sorospen eta osasun izaerako ekipamendu publikoa eraikitzeko: osasun zentro publikoa.

4. JABETZAREN TITULARTASUN ARAUBIDEA

Bastidako Udalak du lurzatiaren jabari osoa, 1991ko martxoaren 19ko udalbatzaren erabakiz onartutako R-9 sektoreko konpentsazio proiektuarengatik.

5. ERABILEREI BURUZKO ARAUBIDEA

Lurzati eraikigarriek jabari eta erabilera publikoa izango dute.

6. AZPIZONA XEHATU BAKARREAN BAIMENDUTAKO ERABILERAKO XEHATUAK

Sorospen eta osasun ekipamendua, izaera publikokoa eta sistema orokor publikoaren sarera atxikia: osasun zentro publikoa.

6. bis.- ERAIKIGARRITASUN FISIKO EDO GORDIN XEHATUA, AZPIZONA XEHATU BAKARREAN

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 35.2 artikulua araberak, orube honen eraikigarritasun fisiko ondoko parametroek adierazten dute: "okupazioa lurzatiaren", "eraikinaren ingurua", "eraikinaren garaiera" eta "estalkia", agiri honen 2.7, 2.8, 2.9 eta 2.10 paragrafoetan xedatutakoak.

6. tertius.- HAZTATUTAKO HIRIGINTZA ERAIKIGARRI XEHATUA, AZPIZONA XEHATU BAKARREAN

Erabilera baimenduen koefiziente haztatua 1 da, hirigintza erabilera bakarrik onartzen baita.

7. OKUPAZIOA LURZATIAN

Lurzatiaren gehieneko okupazioa ehuneko 60 izango da.

8. ERAIKINAREN INGURUA

Eraikinaren gehieneko ingurua ondokoek zehaztuko dute: lurzatiaren aurreko aldera egongo diren 5 metroek eta gainerako mugetara egongo diren 3 metroek.

9. ERAIKINAREN GARAIERA

Eraikinak behe solairua gehi solairu bat izango ditu eta erlaitz edo forjaketara, gehienek, 10 metro. Bastidako udal hirigintza planeamenduan indarrean dauden arau subsidiarioen araudi orokorraren 107. artikulua zehazten du zer den erlaitza edo forjaketa.

10. ESTALKIA

Estalkiak inklinatuak edo lauak izango dira. Estalkio planoen gehieneko malda ehuneko 50 izango da.

11. ERAIKINAREN BALDINTZA ESTETIKOAK

Bastidako arau subsidiarioen 115. artikulua (hiri estetika zaintzea) aplikatuko da.

12. HIRIGINTZA KUDEAKETA

Plan bereziaren helburu den lurzatiak bera da egikaritze unitate eta, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 139. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, sistema orokorraren eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoaren egikaritze jarduerak gisa egingo da.

Hortaz, jarduera publiko baten aurrean gara, bai eta administrazio publikoaren jarduerak zuzen baten aurrean ere. Horiek horrela, hari dagozkio lurzati urbanizatzeko eta eraikitzeko obrak, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 140. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen xedapen iragan-korraren 2. paragrafoaren arabera, hautazkoa da urbanizatzeko jarduerak programa onartu ala ez, zeren lurzatiak antolamendu xehatua egin baitzeukan, lege hori indarrean sartzean.

La documentación escrita y gráfica de la Información Urbanística, recogida en el Documento "1" y nunca se podrá justificar interpretaciones contrarias a lo establecido en los Planos de Ordenación y Normativa Urbanística.

3. APLICACIÓN DE LAS NNSS DE LABASTIDA

En cuanto no resulten contradictorias con la presente normativa, serán de aplicación las "Normas Generales y Particulares de Edificación y Usos" de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Labastida.

3 Bis. ÁMBITO TERRITORIAL DEL PLAN ESPECIAL

El ámbito territorial del Plan Especial es la parcela catastral 291 del polígono 13 de Labastida.

3 Tertius. SUBZONIFICACIÓN DEL ÁMBITO TERRITORIAL

La totalidad del ámbito territorial- la parcela catastral 291 del polígono 13 de Labastida- constituye una única subzona destinada a la construcción de un equipamiento colectivo público de carácter asistencial-sanitario: centro de salud público.

4. RÉGIMEN DE TITULARIDAD DE LA PROPIEDAD

El Ayuntamiento de Labastida tiene el pleno dominio de la parcela del ámbito por mor del Proyecto de Compensación del Sector R-9 aprobado por Acuerdo Plenario de 19 de marzo de 1991.

5. RÉGIMEN DE DESTINO DE LOS USOS

Las parcelas edificables serán de dominio y uso públicos.

6. USOS PORMENORIZADOS PERMITIDOS EN LA ÚNICA SUBZONA PORMENORIZADA

Equipamiento sanitario-asistencial de carácter público adscrito a la red de sistemas generales públicos: Centro de Salud Público.

6. bis.- EDIFICABILIDAD FÍSICA O BRUTA PORMENORIZADA EN LA ÚNICA SUBZONA PORMENORIZADA

De conformidad con el artículo 35.2 de la Ley autonómica 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo de Euskadi, la edificabilidad física de este solar viene expresada mediante el señalamiento de los parámetros "ocupación en parcela", "envolvente de la edificación", "altura de la edificación" y "cubierta" establecidos en los apartados 2.7, 2.8, 2.9 y 2.10 de este documento.

6. tertius.- EDIFICABILIDAD URBANÍSTICA PONDERADA PORMENORIZADA EN LA ÚNICA SUBZONA PORMENORIZADA

El coeficiente de ponderación de los usos permitidos es 1, dado que sólo se permite un único uso urbanístico.

7. OCUPACIÓN EN PARCELA

La ocupación máxima de la parcela será del 60 por ciento.

8. ENVOLVENTE DE LA EDIFICACIÓN

La envolvente máxima de la edificación quedará concretada por la separación de 5 m con su frente de parcela y de 3,00 m con el resto de linderos.

9. ALTURA DE LA EDIFICACIÓN

El edificio tendrá un número de plantas de PB+1, con una altura máxima a cornisa o forjado de 10 metros, entendiéndose ésta de conformidad con el artículo 107 de la normativa general de las vigentes normas subsidiarias de planeamiento urbanístico del municipio de Labastida.

10. CUBIERTA

Las cubiertas serán inclinadas o planas, con una pendiente máxima de los planos de cubierta del 50 por ciento.

11. CONDICIONES ESTÉTICAS DE LA EDIFICACIÓN

Será de aplicación el artículo 115 "salvaguarda de la estética urbana" de las NNSS de Labastida.

12. GESTIÓN URBANÍSTICA

La propia parcela objeto del Plan Especial se constituye como unidad de ejecución y se ejecuta como una actuación de ejecución de dotaciones públicas de las redes de sistemas generales y locales, prevista en el artículo 139 de la Ley autonómica 2/2006, de Suelo y Urbanismo de Euskadi.

Así las cosas, estamos en presencia de una actuación de carácter público y de ejecución directa de la Administración Pública actuante, comprendiendo las obras de urbanización de la parcela y edificación, artículo 140 de la Ley autonómica 2/2006, de Suelo y Urbanismo de Euskadi.

Conforme la Disposición Transitoria, apartado 2, de la Ley autonómica 2/2006, de Suelo y Urbanismo de Euskadi, es potestativa la aprobación de un Programa de Actuación Urbanizadora, puesto que la parcela contaba con ordenación pormenorizada a la entrada en vigor de dicha Ley.

Eremu hau sistema orokorren zuzkidura obren proiektu bidez egingo da, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 195.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Horri guztiari dagokionez, ez da beharrezkoa desjabetze espedientea izapidetzea. Izan ere, lurzattia Bastidako Udalarena da, Bastidako R-9 egikaritze unitateko konpentsazio proiektua onartu izanaren ondorioz, onartu ere 1991ko martxoaren 19an, udalbatzaren erabaki bidez.

TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

2684

214/2011 FORU AGINDUA, apirilaren 20koa, planeamenduko arau subsidiarioen indarreko agirian Samaniegoko 5 poligonoko 300 lurzatiaren kalifikazioan egindako hutsegite materiala zuzentzen duena.

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorraren 2011ko martxoaren 15eko sarrera data duen idazki bidez, Samaniegoko Udalak espedientea igorri zuen huts materiala zuzentzeko, egun indarrean dagoen planeamenduaren arau subsidiarioen 5 poligonoko 300 lurzatiaren kalifikazioan. Idazki horren bidez, eskatu egiten zen 300 A azpilurzattia, substratu hauskor gainean leheneratu beharreko basoaren kalifikazioa duena, Nekazaritza Balio Bereziko Zona Babestu kalifika dadin.

Bigarrena.- Samaniegoko auzotarrek eta udal agintariek jakinarazten dutenaren ildotik, udalak adierazten du 300-A lurzattia betidanik erabili dela nekazaritzan eta inoiz ez dela zuhaitz edo zuhaixkarik izan bertan.

300-B lurzattia baso edo sastrakadi txiki batek hartzen du. Horiek horrela, ez da haren baso kalifikazioa zuzentzeko eskatzen.

Azkenik, ipar-mendebaldeko ertzak ur ibilgu eta ur masen babespeko zonaren kalifikazioari eutsiko dio.

Hirugarrena.- 2011ko martxoaren 30eko idazki bidez, eskatutako zuzentzetaren gaineko Mendi Zerbitzuaren txostena eskatu zen. Zerbitzu horrek, 2011ko apirilaren 8ko idazki bidez, jakinarazi zuen ez dagoela inongo eragozpenik zuzenketa egiteko, baldin eta lurzatiaren hegoaldeko baso edo sastrakadi txikiari eusten bazaio, substratu hauskor eta lehengoratu beharreko baso gisa.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Herri Administrazioen Lege Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2 artikulua hauxe xedatzen du:

“Administrazio Publikoek edonoiz, ofizioz edo interesdunek eskatuta, bere egintzetan ageri diren akats materialak, egitatezkoak edo akats aritmetikoak zuzendu ahal izango dituzte”.

Bigarrena.- Kasu honetan, egiaztatu egin da Samaniegoko 5 poligonoko 300 lurzatioko eraikina ez datorrela bat errealitatearekin; beraz, antzemandako hutsa zuzendu eta Samaniegoko udalak adierazitako eran izapidetzen dira zuzendutako planoak.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Zuzendutako planoak izapidetzea eta Samaniegoko indarreko arau subsidiarioen 5 poligonoko 300 lurzatiaren kalifikazioan antzemandako huts materiala zuzentzea, hots, substratu hauskor eta lehengoratu beharreko baso zonako lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatuta agertu beharrean, nekazaritzarako balio bereziko babeserako zonako lurzoru urbanizaezin (300-A) gisa kalifikatuta ager dadin, salbu eta hegoaldeko zatiko baso edo sastrakadia (300-B). Baso edo sastrakadi horrek eta ipar-mendebaldeko ertzak egungo kalifikazioari eutsiko diote.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

La ejecución de este ámbito se hará a través de proyecto de obras de dotaciones de sistemas generales conforme prevé el artículo 195.2 de la Ley autonómica 2/2006, de Suelo y Urbanismo de Euskadi.

En el caso presente no es necesaria la tramitación de expediente expropiatorio por cuanto la parcela del ámbito es propiedad del Ayuntamiento de Labastida por mor de la aprobación del proyecto de compensación de la unidad de ejecución R-9 de Labastida, aprobada por acuerdo de Ayuntamiento-Pleno, de fecha de 19 de marzo de 1991.

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

2684

ORDEN FORAL 214/2011, de 20 de abril, de rectificación del error material advertido en la calificación de la parcela número 300, polígono 5, de Samaniego, del vigente documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento.

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 15 de marzo de 2011, el Ayuntamiento de Samaniego remite expediente de rectificación del error material advertido en la calificación de la parcela número 300 del polígono 5, de Samaniego, en el vigente documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento, solicitando que la subparcela 300-A, calificada como zona forestal y a restaurar sobre sustrato frágil pase a ser calificado como Zona Protegida por su Especial Valor Agrícola.

Segundo.- Señala el Ayuntamiento que la subparcela 300-A se dedica desde siempre a la agricultura, según los testimonios de los vecinos y los representantes municipales de Samaniego, por lo que ha estado siempre libre de vegetación, tanto arbustiva como arbórea.

La subparcela 300-B por el contrario está ocupada por un pequeño soto, por lo que no se plantea ninguna rectificación de su calificación forestal.

Por último, la esquina noroeste mantendría su calificación de zona de protección de cursos y masas de agua.

Tercero.- Mediante escrito, de fecha 30 de marzo de 2011, se solicitó del Servicio de Montes informe acerca de la rectificación solicitada. Dicho Servicio, mediante escrito de fecha 8 de abril de 2011, informó que no existe impedimento alguno para efectuar la corrección siempre que se mantenga el pequeño soto del sur de la parcela como forestal y a restaurar sobre sustrato frágil.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- Dispone el artículo 105.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que:

“Las Administraciones Públicas podrán asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho aritméticos existentes en sus actos”.

Segundo.- En el presente caso ha quedado acreditado que la edificación de la parcela 300 del polígono 5 de Samaniego no se corresponde con su realidad, por lo que procede la rectificación del error advertido y la diligenciación de los planos corregidos en el sentido expuesto por el Ayuntamiento de Samaniego.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,
DISPONGO

Primero.- Rectificar el error material advertido en la calificación de la parcela número 300, polígono 5, de Samaniego, del vigente documento de Normas Subsidiarias, en el sentido de incluirla dentro del suelo no urbanizable de zona protegida por su especial valor agrícola (300-A) en vez de suelo no urbanizable de zonas forestales y a restaurar sobre sustrato frágil, salvo el soto de la parte sur (300 B) que mantendrá su calificación actual al igual que la esquina noroeste, y proceder a la diligenciación de los planos corregidos.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.